

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Gordexolako Udala****Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin betiko onestea.**

Udalbatza Osoak 2019ko apirilaren 25eko ohiko bilkuran, Eraikuntza, Instalazio, eta Obren gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin-behineko onestea erabaki zuen. 2019ko maiatzaren 15ean jendaurrean erakusteko iragarkia argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (91. zenbakia), eta espedientea hogeita hamar (30) egon da ikusgai. Epe horretan alegaziorik edo erreklamaziorik aurkeztu ez denez, erabakia behin betiko onetsizat joko da, ondoren adierazten den eduki osoarekin. Hori guztia, Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 16.3 eta 4. artikuluetan xedatutakoa betez.

Eraikuntza, instalazio eta Obren Gaineko Zerga Arautzen duen Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin-behineko izaeraz onesteko erabakiaren zati xedatzailea:

«10. artikuluko 2. atala (txertatu berria):

%50eko hobaria ezarriko zaie babes publikoko etxebizitzan eraikin berriak eraikitzeke obrei, eta etxebizitza horiek etxebizitza sozialen kalifikazioa badute %95eko hobaria izango dute.

Aurreikusitako hobaria ezartzekoa den kuotari ezarriko zaio, hala bada-gokio (ezarrita badaude edo etorkizunean ezartzen badira), Foru Arauaren 4. artikuluko 2. ataleko a), b) eta c) letrek jasotzen dituzten hobariak.

Interesatuek emakidaren eskabidea aurkeztu beharko dute, eta hobariaren onuraduna izateko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte.»

Gordexolan, 2019ko uztailaren 30ean. — Lehen Alkateordea (187 AD, 2019ko uztailaren 16koa), Josu Xabier Llano Hernáiz